

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA**64/2019 Foru Agindua, martxoaren 12koa. Hutsak zuzentzea martxoaren 14ko 54/2018 Foru Aginduak aurreikusitako ondore faserako deia egiten duen otsailaren 28ko 48/2019 Foru Aginduan**

Hutsa atzeman denez martxoaren 14ko 54/2018 Foru Aginduan aurreikusitako ondore faserako deia egiten duen otsailaren 28ko 48/2019 Foru Aginduan, zuzendu egin behar da. 48/2019 Foru Agindua martxoaren 5eko 51/2019 Foru Aginduaren bidez ere zuzendu zen.

Apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onartu zuenak, 11.b artikuluan aurreikusitakoaren arabera,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea I. eranskina, Lanerako zentroko begiralea lanpostuan (kodea: 126.039) aipatutako ikasketa tituluei gehituz honako ikasketa titulu hau, zeinak lanpostuen hornikuntzan parte hartzeko gaitzen baitu, bat etorritz indarreko lanpostu zerrendan xedatutakoarekin:

406 LH II Gizarte egokitzapena edo ezindu psikikoak.

Beraz, goiko hori gehituta, honako hauek izango dira Lanerako zentroko begiralea (kodea: 126.039) lanpostuaren hornikuntzan parte hartzeko gaituko duten ikasketa tituluak:

403 LH II Elektrizitatea/elektronika arloa.

405 LH II Metal arloa.

406 LH II Gizarte egokitzapena edo ezindu psikikoak.

Bigarrena. Foru agindu honek onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn noiz argitaratzen den gorabehera.

Hirugarrena. Foru Agindu honen aurka, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman zuen organo beraren aurrean, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 12a

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua
M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO